



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

C1 MAILAKO ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO PROBAREN

DESKRIBAPENA

1. PROBAREN HELBURUA

Azterketariak komunikatzeko duen gaitasuna eta hizkuntza erabiltzeko duen gaitasuna ebaluatzea da probaren helburua.

Probak honako alderdietan ikasleak duen ezaguera ebaluatuko du: edozein egoeratan, informazioa jasotzean nahiz ekoiztean, hizkuntza malgutasunez eta segurtasunez erabiltzea; ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea, baita testu zailak ere, gai orokorrei zein bere interesekoei buruzkoak; egoerari erreparatuta, hizkuntza-baliabideen errepertorio zabala izatea; eta ahoskaperen erlaxatuak eta bestelako doinuak ulertzea, baita zarata dagoen inguruetan ere.

C1 Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko, proba bat gainditu behar da. Proba horren maila finkatzeko, Europako Kontseiluaren C1 mailaren berezko gaitasunak hartuko dira oinarri, hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan definitu bezala.

Informazio gehiago: *Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntza Irakaskuntza Berezien [Gaitasun Mailako Curriculum](#).*

2. PROBAREN DESKRIBAPENA

2.1. Egitura eta iraupena

- Probak lau atal izango ditu. Atal bakoitzean trebetasun bat ebaluatuko da: irakurriaren ulermena, entzunaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena. Lehenengo hiru atalek idatzizko proba osatzen dute eta saio bakar batean egiten dira, 15 minutuko etenaldiarekin ulermen atalen eta idatzizko adierazpeneko atalaren artean. Azkena ahozko proba da eta beste saio batean egiten da.
- Iraupena (gehienez): 4 ordu eta 20 minutu, honela banatuta: 2 ordu eta 10 minutu (gehienez) irakurriaren ulermenari eta entzunaren ulermenari dagozkien atalak egiteko; ordu bat eta 50 minutu idatzizko adierazpenaren atala egiteko eta 20 minutu ahozko adierazpenaren atala egiteko.

2.2. Puntuazioa

- C1 Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko, azterketariak atal guztiak gainditu beharko ditu. Puntu guztien bi heren lortu behar du gutxienez. Hartara, idatzizko proban jokoan diren 90 puntutik 60 lortu behar ditu; atal bakoitzean, 30 puntutik 20. Ahozko proban ere puntuen bi heren lortu behar du (30 puntutik 20).
- Nolanahi ere, idatzizko probaren ataletako batean puntuen bi herenetik beherako puntuazioa orekatu ahal izango da, baldin eta puntuazio txikiago hori atal bakar batean ematen bada, gutxienez 17 puntura iristen bada eta idatzizko probaren beste atalen batean gutxieneko puntu-kopurura (60 puntura) iristeko nahikoa puntu badaude.

- Ahozko adierazpenaren atala ezingo da orekatu.

2.3. Ahozko probarako deialdia

Idatzizko proba behin osorik gaindituta, azterketariari ahozko proba egiteko deituko zaio. Hala ere, idatzizko proba gainditu gabe daukaten azterketariek ahozko proba egiteko eskaera egin dezakete matrikulatuta dauden eskoletan. Horretarako, emango zaien inprimakia bete beharko dute:

- Ikasle libreek: ekainean
- Ikasle ofizialek: irailean

Dena dela, ahozko proba gainditzeak, idatzizkoa suspendituta duela, ez dio azterketariari C1 mailako ziurtagiria eskuratzeko eskubiderik emango.

2.4. Probaren zatien deskribapena

Irakurriaren Ulermena

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3	30 puntu (%25)	20 puntu	85 minutu

HELBURUAK

Orientazioa eta informazioa

- ◆ Testuetan berriazko informazioa erraz aurkitzea, eta hainbat iturritatik datorren informazioa biltzea, berriazko eginkizuna gauzatzeko.
- ◆ Oso espezializatuak ez diren gaietarako buruzko berrien, artikuluen, txostenen nahiz iragarkien edukia eta garrantzia identifikatzea.

Argudiatzea

- ◆ Zenbait testu luze eta konplexu ulertzea, bai gizarte-bizitzakoak, bai lan edo ikasketa arlokoak..
- ◆ Jarrera eta iritzi esplizituak zein inplizituak barne hartzen dituzten xehetasun sotilak identifikatzea.

Besterik

- ◆ Edozein idatzizko elkartruke ulertzea (gutunak, testu digitalak, faxak, etab.)
- ◆ Argibideak ulertzea, zein azterketariaren espezialitatearekin lotutakoak, zein ez.
- ◆ Literaturako egungo testuak ulertzea, baita hizkuntzako edo lagunarteko adierazpideak dakartzatenak ere.

TESTU-MOTA POSIBLEAK

- ◆ Korrespondentzia eta idatzizko beste motatako elkartrukeak, digitalak ala ez.
- ◆ Kontratuak.
- ◆ Argibideak.
- ◆ Publizitate-iragarkiak.
- ◆ Iritzi-artikuluak egunkari eta aldizkari espezializatuetan.
- ◆ Txosten eta artikulua konplexuak, gai askotakoak, baita espezializazio puntu bat daukatenak ere.
- ◆ Egungo literatura lanen zatiak eta ipuinak.
- ◆ Liburuen, filmen edo antzerki-lanen aipamen edo berriak.

ARIKETA-MOTAK

- ◆ Erantzuna: aukera anitzekoak
- ◆ Informazio-transferentzia
- ◆ Testuaren ordenamendu lanak
- ◆ Lotzea: (egoerak edo epigrafeak testuekin lotzea / esaldiak zer testutakoak diren edo

esaldiek zer testurekin lotura duten esatea)

- ◆ Hutsuneak betetzea: (hutsuneetan esaldiak jartzea / hitz-zerranda batean bildutako osagaiekin hutsuneak betetzea eta zenbakidun tartetxo batean jartzea/ hutsuneetan aukera zuzena jarriz testua osatzea / hutsuneetan hitz bakarra jarriz testua osatzea).
- ◆ Erantzun posible bakarreko galdera irekiak

Entzunaren Ulermena

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENKO PUNTUAZIOA	IRAUPEN LUZEENA
2 edo 3	30 puntu (%25)	20 puntu	45 minutu
HELBURUAK			
<ul style="list-style-type: none"> ◆ Gai abstraktu eta konplexuei buruzko hitzaldi bat ulertzea, azterketariaren espezializazio-mailatik gorakoa ere izan daitekeena. ◆ Hitzaldiak, debateak eta eztabaidak ulertzea. ◆ Hitzaldi batean oharrak hartzea. ◆ Adierazpen publikoetatik informazio zehatza ateratzea. ◆ Jarraibide teknikoak eta produktuen nahiz zerbitzuen zehaztapenak ulertzea. ◆ Albistegiak ulertzea. ◆ Telebistako filmak eta telesailak ulertzea, baita lagunarteko hizkera eta adierazpide idiomatikoak erabiltzen dituztenak ere. ◆ Elkarrizketa konplexuei jarraitzea, bai eta hirugarren pertsonen artekoak direnean ere. ◆ Esamolde idiomatiko eta lagunarteko asko ezagutzea. ◆ Erregistro-aldaketak hautematea. ◆ Etenaldien, etenduren, intonazioaren, tonuaren, mugimenduen eta keinuen komunikazio-asmoez ohartzea. 			
TESTU-MOTA POSIBLEAK			
<ul style="list-style-type: none"> ◆ Hainbat hiztunen arteko elkarrizketak, lagunartekoak nahiz formalak, baita gai abstraktuei eta konplexuei buruzkoak ere (norberaren ikuspuntua solaskideari adieraztea, gatazkak ebaztea, mota guztietako transakzioak, ondasunak erostea eta zerbitzuak kontratatzea, interes orokorreko negoziazioak). ◆ Telefono bidezko elkarrizketa formalak eta informalak. ◆ Nolabaiteko konplexutasuna duten gaiei buruzko eztabaidak eta jendaurreko hizketaldiak, bai esparru pertsonalekoak, bai ikasketa edo lanbide arlokoak. ◆ Elkarrizketak (lanekoak, ikasketa arlokoak, eta abar). ◆ Jendaurreko jarraibide luzeak. ◆ Gai konplexuei buruzko jendaurreko aurkezpenak (proiektuak, txostenak, esperientziak, eta abar). ◆ Telebistaz edo irratiz emandako mota guztietako berriak. ◆ Telebistako edo irratiko dokumentalak. ◆ Publizitatea, irratian eta telebistan. 			
ARIKETA-MOTAK			
<ul style="list-style-type: none"> ◆ Erantzuna: aukera anitzekoak. ◆ Informazio-transferentzia ◆ Lotzea ◆ Antolatze-ariketak ◆ Erantzun bakarreko galdera irekiak. 			

Idatzizko Adierazpena

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	30 (10 + 20) puntu (% 25)	20 puntu	110 minutu

HELBURUAK

- ◆ Deskribapenak eta irudimenezko testuak argi, zehaztasunez eta ongi egituratuta idaztea, konbentzitzeko moduko estiloa, pertsonala eta naturala eta idazkiaren hartzaile izango diren irakurleei egokiturikoa erabiliz.
- ◆ Ikuspuntuak defendatzeko ideia osagarriak, arrazoiak eta adibide egokiak erabiltzea.
- ◆ Zenbait aukeraren abantailak eta desabantailak azaltzea eta argudiatzea.
- ◆ Testu informatiboak idaztea.
- ◆ Mezu elektronikoak idaztea.
- ◆ Gutun formalak eta komertzialak idaztea, gutun horiek jasoko dituzten pertsonen egoki zuzendurikoak.
- ◆ Hainbat iturritan bildutako informazioa laburbiltzea (aipuak, datu estatistikoak, grafikoak, titularrak, eta abar).

TESTU-MOTA POSIBLEAK

- ◆ Gutunak, faxak, mezu elektroniko konplexuak eta luzeak, merkataritzakoak edo lan-arlokoak.
- ◆ Eztabaida-leku birtualetako mezuak (blogak).
- ◆ Jarraibideak eta arauak.
- ◆ Txostenak (egoerak aurkeztea, aukeren abantailak eta desabantailak azaltzea, etab.)
- ◆ Esperientziak kontatzeko narrazioak
- ◆ Iritzi- eta argudio-testuak.
- ◆ Informazioa aurkeztea.
- ◆ Pertsonak, gauzak, jarduerak, zerbitzuak eta lekuak deskribatzea.
- ◆ Planak eta egitasmoak

ARIKETA-MOTAK

1. ataza: ekoizpen laburra

Azterketariari honako ekintzetatik **bat** eskatuko zaio:

- a) Ariketa bideratua:
 - Testu bat edo testu baten hainbat zati berridaztea, aldatzea edo birformulatzea.
 - Testu bat zuzentzea.
 - Testu bat hartzaileari erreparatuta egokitzea.
 - Aurrez emandako informazioa edo zenbait elementu oinarri harturik, testu bat sortzea
- b) Idazlana*: egoera edo hasierako proposamen bati erantzunez, testu bat sortzea.

*Eskatutako hitz kopurua: 120 eta 140 hitz artean.

2. ataza: ekoizpen luzea

Testu, egoera edo hasierako proposamen bati erantzunez, azterketariak honako testuetako bat idatzi beharko du:

- ◆ Argitalpen, eskolako aldizkari, herriko aldizkari edo blog baterako, gairen bati buruzko iritzi-artikuluak.
- ◆ Aurrez proposaturiko gaiaren aldeko / kontrako argudio-testua.

Ariketa honetan, gerta daitezkeen **bi egoera, arazo edo gai** proposatuko zaizkio azterketariari. Azterketariak bietako bat aukeratu beharko du ariketa gauzatzeko.

Adi: idatzitako testua argibideetan azaldutako alderdiak kontuan hartuta egingo du azterketariak.

Eskatutako hitz kopurua:

- ◆ Alemana eta euskara: 240 eta 260 hitz artean.
- ◆ Frantsesa eta ingelesa: 290 eta 310 hitz artean.

Ahozko Adierazpena

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	30 (15 +15) puntu (%25)	20 puntu	20 minutu

HELBURUAK

Bakarrizketa:

- ◆ Gai konplexu bati buruzko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea, gaiari buruz hitz egitea eta bere ikuspuntua defendatzea ideia osagarriak, arrazoiak eta adibide egokiak erabiliz.
- ◆ Denbora-koherentziari nahiz koherentzia logikoari eustea, eta behar adina informazio eta behar bezain esanguratsua eskaintzea.
- ◆ Ideiak lotzeko lokailuak eta diskurtso-antolatzaileak egoki nahiz malgutasunez erabiltzea.
- ◆ Hitz-jario egokiz mintzatzea, esanahi-ñabardurak helarazteko doinu zehatza erabiliz.

Elkarreragina:

- ◆ Eztabaidetan, elkarrizketetan eta negoziazioetan parte hartzea, zuzentasunez eta hitz-jario egokiaz, esanahi-ñabardurak transmitituz.
- ◆ Zenbait gertakarik eta esperientziak berarentzat duten garrantzia helaraztea, eta horiek eragiten dioten emozioa adieraztea.
- ◆ Argumentuak argi garatzea eta ideia osagarriak nahiz adibide egokiak erabiliz azaltzea.
- ◆ Beste solaskideen ikuspuntuen nahiz argumentuen ganean, nork bere iritzia ematea, horretarako, beste argumentu, ikuspuntu eta iritzi batzuk egoki erabiliz.
- ◆ Gai baten gaineko ikuspuntua azaltzea, eta aukera batzuen eta besteen abantailak eta desabantailak azaltzea.
- ◆ Diskurtsoko funtzioetarako perpaus egokiak hautatzea nork bere ekarpenak egiteko, hitz hartu eta hitzari eusteko eta nork bere esku-hartzeak gainerako solaskideenekin lotzeko.
- ◆ Diskurtsoko kontrol-mekanismoak modu egokian erabiltzea (solaskideek esandakoa ulertu dutela ziurtatzea, informazioa egiaztatzea edo gezurtatzea, nork bere burua zuzentzea, informazioa zuzentzea, esanahiak argitzea,...)
- ◆ Argibide zehatzak ematea.
- ◆ Informazioa sintetizatzea.
- ◆ Naturaltasunez aritzea, hurbiltasun edo urruntasun maila egokiari eutsiz.

TESTU-MOTA POSIBLEAK

Bakarrizketa: Beste azterketari bati edo batzuei emandako azalpena.

Elkarreragina: Hizketaldia beste azterketari batekin edo batzuekin.

ARIKETA-MOTAK

1. ataza: bakarrizketa

Azterketariek 150 eta 200 hitz arteko testua edota argazkiak, irudiak nahiz grafiko iruzkinduak jasoko dituzte. Horiek guztiak probarako proposatu den gaiari buruzkoak izango dira. Testu, argazki edota irudiekin batera, informazioa eman eta garapen-proposamenak egingo dira. Azterketariak informazio horretaz balia daitezke ariketa gauzatzeko.

Azterketari bakoitzak proposatutako gaiaren gainean aritu beharko du, beste azterketariari bere ikuspuntua azalduz, informazioa gehituz, bere iritzia adieraziz.

Azterketariak 20 minutu izango du ataza hau prestatzeko.

Denbora: azterketari bakoitzak 4 eta 5 minutu artean izango ditu bere azalpena gauzatzeko.

2. ataza: elkarreragina

Azterketariek elkarrekin hitz egingo dute, informazioa elkarri helaraziko diote eta nor bere iritzia adierazi beharko dio besteari. Arazo baten balizko zioak aztertuko dituzte; irtenbideak alderatuko dituzte eta hainbat alorren gaineko auziei buruzko informazioa trukatu dute.

Azterketariek galderak egin eta galderei erantzun beharko diete; hitza hartu eta solaskideari hitz egiten utzi beharko diote; hau da, mintzaldia kontrolatzearekin lotura duten funtzio guztiak gauzatu beharko dituzte.

Azterketariek orri bat jasoko dute; proposatutako ariketa eta ariketa hori gauzatzeko beharrezkoa duten informazio guztia azalduko zaie bertan. Fitxa horretan, halaber, zerrenda bat ager daiteke; bertan, ikuspegi desberdinen aldeko edo kontrako argudioak nahiz datuak bilduko dira. Informazio horrek eztabaida gidatu eta suspertuko du.

Ez du denborarik izango ataza hau prestatzeko

Ataza gauzatzeko denbora: 5 eta 6 minutu artean.

Ahozko proba bikoteka egingo da (salbuespenez, ahozkoa hiru edo banaka egingo da).

[Ahozko adierazpen probari buruzko azalpen zehatzagoa.](#)

3. ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK**Idatzizko Adierazpena**

IRIZPIDEAK	ZER EBALUATUKO DA
Egokitasuna: ariketa bete izana eta koherentzia komunikatiboa	<ul style="list-style-type: none"> ◆ atazan edo ariketan eskatutakoa betetzea. ◆ erregistro estandarri – formalari edo lagunartekoari –, hartzaileari, helburuari eta egoerari egokitzea. ◆ informazioaren eta ideien antolaketa. ◆ argudioen aberastasuna.
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> ◆ ideien kohesioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ diskurtsoko lokailuak egoki erabiliz. ○ erreferentzia-mekanismoen bidez. ◆ puntuazio-ikurrak.
Aberastasuna eta zehaztasuna: lexikoa morfosintaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> ◆ elementu lexikoen erabilera. ◆ adierazpen idiomatikoen erabilera. ◆ egitura morfosintaktikoen erabilera. ◆ baliabide lexikoen eta gramatikalen ugaritasuna eta aniztasuna.
Zuzentasun morfosintaktikoa eta ortografikoa	<ul style="list-style-type: none"> ◆ mailako baliabide linguistikoak kontrolatzea. ◆ elementu lexikoen forma. ◆ azentuazioa (hizkuntza batzuetan).

Ahozko Adierazpena

IRIZPIDEAK	ZER EBALUATUKO DA
Egokitasuna: ariketa bete izana eta koherentzia komunikatiboa	<ul style="list-style-type: none"> ◆ ataza edo ariketa komunikatiboan eskatutakoa egitea. ◆ erregistroari egokitzea. ◆ informazioaren eta ideien antolaketa.
Kohesioa eta jariora	<ul style="list-style-type: none"> ◆ ideien kohesioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ diskurtsoko lokailu egokien bidez. ○ erreferentzia-mekanismoen bidez. ◆ etorria, erritmoa eta naturaltasunez mintzatzea.
Aberastasuna eta zehaztasuna: lexikoa eta morfosintaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> ◆ erabilitako hiztegiaren zehaztasuna. ◆ elementu idiomatikoen erabilera. ◆ baliabide lexikoen eta gramatikalen aberastasuna, aniztasuna eta zabaltasuna.
Zuzentasuna eta ahoskera	<ul style="list-style-type: none"> ◆ mailako baliabide linguistikoak menderatzea. ◆ doinuaren nahiz ahoskeraren naturaltasuna eta argitasuna.

4. AZTEKETA EREDUA: ARIKETAK. ADIBIDE PRAKTIKOAK

[Azterketa ereduak eta ariketa praktikoak.](#)

5. PROBA EGITEAREKIN ETA ADMINISTRATZEAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT KONTU

Administrazioa

- ◆ **Proba egin ahal izateko baldintzak**
C1 Mailako ziurtagiria lortzeko proba egiteko, nahitaezko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako batean matrikulatuta egotea dagokion hizkuntza eta mailan.
- ◆ **Deialdiak**
Azterketetako egutegia kontsulta daiteke ikasturte bakoitzari dagokion ebazpenean, ikasle ofizialenean zein azterketari libreenean.
- ◆ **Proba ezintasunen bat duten pertsonei egokitzea**
Ezintasunen bat duten ikasleen behar berezietara egoki daitezke probak. Horretarako, matrikulatzean, dagokion eskolan jakinarazi beharko du hori interesatuak.
- ◆ **Proba berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea.**
Antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren arabera –bertan zehazten da zein diren ikasleen eskubide eta betebeharrak– edozein azterketarik uste badu ebaluazio-prozesua ez dela egokitu araudian ezarritakora, proba berrikusteko eskaera egin dezake proba egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean, eskola bakoitzak aurreikusitako egutegia errespetatuz, betiere. Dagokion hizkuntza-departamentuak azalpenak emango dizkio interesatuari.

Azterketariaren eginbeharrak eta erantzukizunak

	Probaren aurretik	Proban zehar
EGINBEHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Gogoratu NAN, pasaportea edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat aurkeztu beharko duzula azterketa-gelan eskatutakoan. ◆ Tinta beltz edo urdinezko boligrafoa ekarri behar duzu probara. ◆ Proba normaltasunez egitea oztopa dezakeen edozein arazoiren berri eman behar zaio eskolako Ikasketa Burutzari, gutxienez proba egin baino astebete lehenago. Ikastetxeko Zuzendaritzak erabakiko du aurkeztutako arrazoa onartu ala ez; edozein kasutan, ordaindutakoa ez da itzuliko. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Erantzun guztiak boligrafo beltz edo urdinaz idatz itzazu. Ez da zuzenduko proba ofizialaren itxura bera ez duen probarik; ezta arkatzaz idatzikorik ere. Ez ezazu erabili ezabatzen den boligraforik. ◆ Itzali gailu elektroniko guztiak, telefono mugikorra eta erloju elektronikoa barne. Azterketa egin bitartean, ezin izango da horrelako gailurik erabili, ezta denbora kontrolatzeko ere. Arau hau bete ezean, azterketa baliogabetu egingo da.
ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ondo begiratu probaren eguna, ordua eta gela zein diren eta antolatu garaiz iristeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Behar bezala antolatu eta banatu ariketa bakoitza egiteko dagoen denbora. Denborak kalkulatu daude eta ariketa bakoitza egiteko nahikoa asti dago. Komenigarria izaten da berrikustea eta egon daitezkeen akatsak zuzentzea. ◆ Arretaz irakurri ariketa eta zati bakoitzerako emandako argibideak. ◆ Letra argia erabili ariketa osoan. Zuzentzat emandako erantzunak argi geratu direla ziurtatu. ◆ Garrantzitsua da lasai egotea eta proba egiteko ematen diren argibideak arretaz jarraitzea, batez ere entzunaren ulermenari dagokion zatian.

6. INDARREAN DEN ARAUDIA

Lege eta administrazio arauak

C1 Mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko probak legean eta administrazioan arauturik daude, jarraian aipatuko ditugun lege eta agirietan, hain zuzen:

- ◆ [2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa](#).
- ◆ [Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretua](#). Honen bidez, Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoan, maiatzaren 3koan, arauturik dauden erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen curriculumaren oinarritzko alderdiak ezarri diren.
- ◆ [46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa](#). EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailletako –oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila– curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.
- ◆ Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntza Irakaskuntza Berezien [Gaitasun mailaren curriculuma](#).
- ◆ EAEko HEOetako C1 mailari dagokion **zertifikazio-probaren zehaztasunak** biltzen dituen dokumentua.
- ◆ [Agindua, 2012ko maiatzaren 15ekoa](#), Erregimen Bereziko Hizkuntza Ikasketak **ebaluatu** eta egiaztatzea arautzeko dena (EHAA, 113. zkia – 2012ko ekainaren 11koa).
- ◆ **Ebazpena** Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako **proba libreen deialdia** arautu eta probak nola egingo diren finkatzekoa, oraingo ikasturte honi dagokiona.

Probaren maila.

C1 Mailako probaren maila honako lege-dokumentu hauetan jasotakoa da:

- ◆ [1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa](#). Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- ◆ [46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa](#). EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailletako- oinarritzkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.
- ◆ Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Araubide Bereziko Hizkuntza Ikasketetako [Gaitasun Mailari dagokion Curriculuma](#).
- ◆ [Europako Erreferentzi Marko Bateratua](#), batez ere:
 - 3.3 puntua, 1. koadroa (32. orrialdean)
 - 3.5 puntua, 2. koadroa (34 – 35. orrialdeetan)

Informazioa.

- ◆ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hizkuntza Eskola Ofizialen Web orria: <http://www.euskadi.eus/heo>
- ◆ Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren Web orria: <http://www.euskadi.eus/heo>
- ◆ Eusko Jaurlaritza Hezkuntza Saila:
<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>